

914 zkia.
2014-XII-30
...eta

Kitto!

URTEKARIA
barruan
2014
hilez
hile



Urte Berri On!



Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ZERBITZUA **G**ESTIOA **A**DMINISTRAZIOA

30 urteko esperientziak
ematen duen
konfiantza

www.euki.com

Tel: 943 200 358



CRF AMOSTEGI

ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA

* ERREHABILITAZIOA

- Osakidetza - Aseguruak

* FISIOTERAPIA PERTSONALIZATUA

Esku terapia - Osteopatia / INDIBAterapia (Radiofrequentzia) / Txizaren inkontinentzia (emakumeak eta gizonak)

E.P.I.: Azal-elektrolisi intratisularra / K-LASERterapia / Puntzio lehorra

* HAURDUNEN OSASUNARENTZAT ETA ERDIONDORAKO DENETARIK

- Amatasunerako prestakuntza:

Haptonomia eta Metodo tradizionala (taldeka/banakakoa)

- Episiotomiaren prebentzioa, Txiza-inkontinentzia, Prolapsoak: EPI-NO + Masajea

- Lunbalgien, Sakroilialgien, Coxigodiniien... esku-tratamendua

- Pelvis-zoruaren balorazioa erdiondoan

- Tratamenduak txizaren inkontinentzia eta/edo inkontinentzia fekalerako, zesareen orbaintzat, episiotomiak, perineoko mina, etb.

- Antzutasun funtzionalaren tratamendua

* MEDIKUNTZA ESTETIKOA


- Zelulitisaren tratamendua kabitazio ultrasonikoaren eta elektrolipolisisaren bitartez

- Eskuzko drainatze linfatikoa (DLM) eta/edo presoterapia

- Elektrodrainatze linfatikoa eta baskularra (zainetako itzuleraren areagotzea)



Esku onenetan izango zara!



Muzategi, 2 behea Tfnoa/Fax. 943 20 34 46 info@crf-amostegi.com www.crf-amostegi.com




943 366 377 www.dentalaldaz.com

horts klinika · clínica dental

San Bartolome, 22 (Elgoibar)

Ola kalea, 10 (Lasarte-Oria)

*"Aldaz Horts Klinikak
eta bertoko profesional-taldeak
GABON ZORIONTSUAK
opa dizkizue"*



**INPLANTEA
+ HORTZA
egun
batean**

**Arazoak
horts hagin
ordezkoarekin
edo horts bat
edo besteren
faltarekin?**

SOLUZIO FINKOA:

horts bat edo gehiago
jartzea metal-zeramikan

SOLUZIO FINKOA:

horts guztiak metal-zeramikan
jartzea 6 inplanterekin

SOLUZIO MUGIKORRA:

ordezko horts hagin osoa erretxinan
jartzea 2 inplanterekin gutxienez

2015. urterako prestatzen dihardugu.

Beti ere gure pazienteen ongizateaz arduraturik, hortzetako osasuna inork alde batera utzi ez dezan ahalegintzen gara. Hornitzaileekin dugun harreman zuzenari esker, tratamendu guztietan kalitatea/prezioa doitzen ditugu, datorren urtea guztiontzat errazagoa izan dadin gure aportazioa eginez. Gure paziente guztiei guran jarritako konfidantza eskertu nahi diegu.

2015 zoriontsua.

RPS: 233/13

ESTHER MAESTRE
ODONTOLOGOA
2000570 kolegiatu zkia.



*Kontsultaiguzu
zure kasua*

ASTEAN ESANAK

"Ezin da ukatu liburu digitalak, gehienetan, ez direla euskaraz. Horren ondorioz, euskaraz irakur lezakeen jendeak aise jotzen du beste hizkuntzerara, eta gero eta gutxiago irakurtzen ditu euskarazkoak"

(ENEKO BIDEKAIN,
KAZETARIA)

"Gaur egungo mutil edo neska batek bere telefonoa galtzea buruko iktusa izatea modukoa da. Bera den gutzia hor barruan dago: bere ezagupenak, bere kontaktuak, harreman sozialak..."

(JOSE ANTONIO MARINA,
FILOSOFIA)

"Alzheimerra burmuinak hazteari lagatzen diorean sortzen da, 30 urterekin gutxi gorabehera. Sintomak aztertzen hasten garenean, 65 urterekin esaterako, hainbeste neurona hil dira ezin dugula bestelako ezer egin. Burmuinak, gainera, bere mugak ditu: ez dugu heldutasun nahiko garatu dugun teknologia guztia erabili ahal izateko"

(RAMON CACABELOS,
MEDIKUNTZAN KATEDRADUNA)

"1990etik hona sei urte igo da bizi-itxaropena munduan. 188 herrialdetan egindako ikerketek diotenez, 1990ean 65'3 urtekoa bazen, orain 71'5ekoa da. Emakumeen kasuan 6'6 urtetan igo bada, gizonezkoenean 5'8. Joera horri eustekotan, 2030erako emakumezkoek 85'3 urte hartuko lukete batez beste eta gizonezkoek 78'1 urte"

(THE LANCET,
ALDIZKARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

KEIXIA LAKOTXE ESPANAK EUKI.- Ezpainen gorritasuna adierazteko konparazioa. "Keixia lakotxe espanak eukazen, ezertariko pintturarik bihar gabe".

KERIZA EGIN.- Besteei norberegana errespetua sortarazi. "Gazte agertu arren, kerizia egiten zetsan nausixari, ikusten ebalako zer izango zan denbora asko baiño lehen".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarrik

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitetzke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

ERREDAKZIOAREN OHARRA:

Datorren astean ez da alerik izango (besteontzako Gabonetako oporrak direnak guk urte berriaren lehen astean hartzen baitugu) eta eskuan duzun Urtekariaren ondorengo **hurrengo zenbakia -Kirolkitto!- urtarrilaren 16an** jaso ahal izango duzu zure buzoian. Barkatu eragozpenak eta ondo pasa bitartean.

ERREDAKZIOA



ARGITARRAZTARILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarteak@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERAK:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Periko Iriondo
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Gabonetako kontzertuak

Gabonen aurreko asteburuan, abenduaren 21ian sasoiarekin bat eginen daben musikia eskintzeko hiru emanaldi egin ziran guriar: Usar-tza txistulari taldekuak kalerik kale ibilli eta gero, udaletxeko arkupietan kontzertua emon eben; Cielito musika bandakuak, barriz, Coliseuan jardun eben aurtengo azken emanaldixa eskintzen; eta arratsaldian Sostoa eta Ermuko Pispillu abesbatzak alkarrekin kantau eben San Andres elizan, pare bat egun lehenago Ermuan egindako moduan.



Sostoa abesbatzak eta Musikuen eta Txistularixen Bandak eskindutako kontzertuak.
LEIRE ITURBE



Txistorra Eguneko sariak banatuta

Eibarko Txirindulari Elkartearen Txistorra Egunean egin zuten zozketako irabazleei sariak banatu dizkiete. Errifaren irabazlea Enrique Garma (Wickie) izan zen eta bere saria Oberena harategian jaso zuen. Eta Txistorra Egunean txirindulari elkarteko bazkide egin zirenen artean zozketatu zuten bizikleta, berriz, Elena Saras-ketari egokitu zitzaion eta, argazkian ikusten duzuen moduan, denda jaso zuen saria. Elkartekoez aurten eurekin egon diren guztiei eskerrak eman nahi dizkiete, "Gabon zoriontsuak eta urte berri on opatuz". Bestalde, urtarrilaren 10ean elkarteak batzarra egingo du Portalean (12.00etan) eta bazkide egin nahi duenak bertara agertuta horretarako aukera izango duela eman dute aditzera.



LEIRE ITURBE



Olentzero bisitan

Umiak eta nagusixak, danak pozarren hartu eben Olentzero abenduaren 24an gurera egindako bisitan: soiñujoliak, Kaleetan Kantuz abesbatzak, Pantxika astuak eta herriko ume morduak lagunduta ka-

lejiran ibilli eta gero, Olentzerok umiak banan banan hartu zittuan udaletxian eta, bakotxaren kontuak arretaz entzun eta gero, oparitxo bana emonda agurtu zittuan, datorren urtera arte.



IÑAKI ALTUNA ORMAETXEA "MALATU"

II. urteurrena (2012-XII-30)

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin geratzen da.
Inoiz ez zaitugu ahaztuko: beti gure bihotzean.

ROSA, ZIGOR ETA ION





Ipuruako dantza garaikidekuen erakustaldixa.
LEIRE ITURBE



Isekin alkartiaren jaixa

San Filippo gaitza sendatzeko inbestigaziñorako dirua batzeko jaixa antolatu eben Isekin alkartekuak hillaeren 20xan: egun osuan Untzagan egon ziran boluntariuak, ipuin solidarixuak saltzen eta txosnan pintxuak eta edarixak zerbitzen. Arkupietan herri bazkarixa egin eben. Gaiñera, jaialdixa girotzeko, bestiak beste dantza erakustaldixa eskindu eben Ipurua dantza garaikidekuak eta Kaleetan Kantuz abesbatzakuak abesten egon ziran.



Made in Eibar lehiaketako irabazliak

Anemona Studioko Irune Jaiok eta Ander Azpiazuk grabautako ikusentzunezkuak jaso dau udalak lehelengoz antolatu daben "Made in Eibar" lehiaketako sarixa, Ander Arroitauregi luthier eibartarraren biharra erakusten daben lanarekin. Sarittutako bideua ikusi nahi dabenak, Vimeoan, Anemona Films-en perfillian sartu besterik ez daka.

autuan



BERTSO SAIOA AKARAN

Urtarrillaren 3rako bertso saioa antolatu dabe Akara tabernakuak, Hankamotxak bertso eskolakuen laguntasunarekin. Jokin Bergara, Desiree Magro, Arrate Illaro eta Aimar Goenaga bertsolarixak jardungo dabe, Ion Martinezek emondako gaixeri jarraituta, 19.00etan hasitta.

GORUNTZEN LOTERIXIA

Goruntz abesbatzak saldutako Gabonetako loterixiak (19.445) premixua jaso dau. Partizipaziñuak erosi zittuanak Euskadiko Kutxako edozein bulegotan kobrau leike. Korokuak eskerrak emon nahi detsez lagundu detsen guztieri.



• tartak
• enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

f M Funeraria·Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
---	--

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra
☎ 943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Aire berriak!

Estaziño, 4
943 254776

Khôl

Estilistak

Antzerkixa kabalgatiari laguntzeko

Aurtengo Errege kabalgatia sekula baiño ikusgarrizagoa izatia nahi dabe antolatzailliak eta, horretarako, Eventus Culture konpainiak kontratatu ditue, magiaz betetako kale-antzerkixarekin Hiru Erregiak urtero urtarrillaren 5ian egiten daben kalejira jantzi deizen. Aurretik, baiña, Eibarko Balletak, Ipurua dantza garai-kidiak eta Ipurua Gimnasia Erritmika taldiak 16.30xetan hasitta erakustaldixa eskinduko dabe kiroldegixan (aurten

gonbidapenarekin sartu bihar-ko da jendia) eta, hori amaittuta, Hiru Erregiak Lambretta motorretan Untzagara bajauko dira, 19.00etan urtengo daben kabalgatan parte hartzeko. Meltxor, Gaspar eta Baltasar ondo lagunduta juango dira bidian, bestiak beste antzez-lik, Cielito musika bandakua eta 6. maillako 48 ikaslek eruangotuen antortzak tartian dirala. Kabalgatia Urkizuraino bajau eta atzera be Untzagara igoko da, 20.00etatik



aurrera erregiak udaletxian umieri harrerria egittek. Aurtent San Andres ikastetxia sor-

tu zala 50. urte bete dirala eta, eskolakuak izango dira ekitaldiko protagonistak.

Hitzarmenen aldeko alkarrataratzia



Aurreko astian "Adegi lapurrak. Hitzarmenak orain" idatzita zekan pankartia zabaldua alkarrataratzia egiñ eben LAB sindikatuko ordezkariak: "Debabarrenian millaka bihargiñeri babetesa emoten detsen metalaren hitzarmena 2011. urtiaroz gozotik barritu barik dago eta beste sektore batzuetako hitzarmenekin gauza bera gertatzen ari da, ADEGI Gipuzkoako patronalak Espainiako gobernuaren lan erreformia aplikatu nahi dabelako eta herrialde maillako hitzarmenak desagertarazi nahi dittalako". Alkarretaratzia Urkizun egittekua zala gaiñeratu dabe sindikatuko ordezkariak, "baiña Nerea Zamakola ADEGIko Negoziaziño Kolektiboko arduraduna han inguruan bizi dala eta, Ertzantzak debekatu egin desku".

Eibart Garage azokia, urtarrillaren 5era arte

Eibart Eibarko Artisau Elkarteak, udalak lagunduta antolatu daben Eibart Garage azokia urtarrillaren 5era arte egongo da martxan, Zuloagararren kaleko 5. zenbakixan (Kultu eta Katu Kale tabernen artian). Urtebarri egunian izan ezik egunero goizez (11.00etatik 14.00etara) eta arratsaldez (17.00etatik 21.00etara) zabalduko daben azokan, urtero lez, Eibarko zein kanpoko artisauak egindakuak erosteko aukeria dago.



M^a VICTORIA MENDIZABAL ARANZABAL (I. URTEURRENA: 2014-I-5)

*"Zure familiak ez zaitu inoiz ahaztuko;
betirako izango zara gure bihotzetan.
Maite zaitugu. Orain eta beti".*

ZURE ALARGUNA, SEME-ALABAK, BILOBAK ETA BIRBILOBAK.





40 otar oparitu dittue dendarixak

Eibarko Dendarien Elkartekuk Gabonetako 40 otar banatu zittuen abenduaren 23an alkarteko txartelarekin erosketak ordaindu zittuenen artian egindako zozketan sarituko beste horrenbeste lagunerri. Erretratuan ikusten dan moduan, irabazliak Untzagan jaso eben sarixa eta, etxera eruan aurretik, danak alkarrekin erretratua etara eben.

EibarLAB's arrakastatsua

Abenduaren 20xan udaletxe-ko patixuan egindako EibarLAB's taillar teknologikuak edade guztietako jende mordia erakarri eben eta, parte hartzera animau ziranak, mini-robotak, 3D inpresoran egindako piezekin osatutako Gabonetako apaingarriak, oiha-lak eta argixak nahastautu egindako bolak eta bestelako bitxikeriak eginda edarto emon eben zapatu goiza.



Osasunaren alde... mugitu zaitez!

Abenduaren 19an ehundaka gazte batu zittuen Uni Eibar-Ermua ikastetxe-ko Kirol eta Jarduera Fisikoetako Animazioa zikloko ikasleek antolatutako Osasunaren Aldeko Martxaren hirugarren edizioak. Gazteak bizitza osasuntsuaren garrantziaz ohartarazteko asmoz urtero antolatzen duten martxak herria zeharkatu zuen eta, jarraian, ekitaldia Astelena frontoian agurtu zuten, "El Conquistador del fin del mundo"ko Julian Iantzi, Manu Maritxalar, Julen Madina eta Eneko Van Horen-bekeren partehartzea izan zuten hainbat jokorekin.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

GABONETAKO PROMOZIOAK

- **RADIOFREKUENTZIA** (AURPEGIA + BESOAK) **50€ saioa**
- **BETILE LUZAPENAK** **35 saioa**
- **GEL ATZAZKALAK** **35 saioa**

ASTELENA

150 Ardo - 50 Barran
Maridajeak / Kazuelitak
Ehizako haragia
Plater konbinatuak
Otaratekoak eramateko

GASTROTEKA

Estaziño, 7
943 20 70 32

Kalamuakoak karatean eta judoan

Hondarribiko Jostaldi frontoian jokatu-tako karateko infantil mailako Gabon Torneoa Kalamuako sei ordezkari hartu zuten parte eta Xuban Hoyosek zilarrezko domina lortu zuen, Miren Elorza bosgarren sailkatu zen bitartean. Eta Iruñako Mendillorriko trinketean jokatu-tako judoko kadete mailako Espainiako Kopan, Iker Martinezek hirugarren borrokan galdu zuen (10.a da Espainiako ranking-ean) eta Javier Criadok ukondoan hartu zuen min eta hainbat astetarako izango du.



Jose Antonio Hoyos epailea eta Xuban.

Uretako San Silbestre

Urbat-Urkotronik-ek Uretako San Silbestreren 3. edizioa antolatu du bihar goizerako, 09.00etan hasita. Iaz 60 bat igerilari bildu ziren Ipuruako igerilekuan eta, diotenez, "oraingoan 100era heltzeko asmoa dugu". Bestalde, 23an Miguel de los Toyos alkateak Urbat taldeko Ander Izagirre, Nora Varela eta Markel Alberdi igerilariak hartu zituen euren kirol meritua gogora ekartzeko (argazkian).



Lagunartean korrika

Abenduaren 24an 11 kilometro egin zituzten -tartean oinez eta tartean korrika- Klub Deportiboko mendi lasterketako Kalamua Korrikalari Taldeak antolatutako irteeran parte hartu zutenek. Deporren parean hasi eta Txontatik, markatutako GRtik, San Salbadorrerako bidea hartu zuten; gero, Topinburutik pasatuta, Galdaramiño gainera heldu ziren eta, handik, Unbe aldera, jo zuten. Proba Klub Deportiboaren aurrean amaitu zuten.



Abenduaren 24an proba hasi aurretik ateratako talde-argazkia.

Eibar FT-ren historia ikusgai

Hastear dagoen urtean Eibar kirol elkartearen sorreraren 75. urteurrena beteko da eta, horren harira, urtarrilaren 9tik otsailaren 1era bitartean "Eibar K.E. 1940-2015 / 75. urteurrena" izenburuko erakusketa hartuko du Portaleak. Atzera begirako erakusketa erraldoia izango da eta 1940an Union Deportiva Eibarresa eta Deportivo Gallo taldeen arteko fusioa eman zenean hasi eta aurrean Lehen Mailara igo bitartekoei errepaso emateko aukera egongo dela aurreratu dute. Erakusketa martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara zabalduko dute.

Arregi - Dominguez
ARRAINDEGIA

Bidebarrieta, 4
943 20 11 38

Ego-Gain, 9
943 20 32 09

Zorionak

Urte Berri On

Mariskoak
Arrain freskoa eta izoztua
Enkarguak hartzen ditugu
Ondarruko arraina

eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Marka onenetakoen
Zerbitzu
Tekniko onena

www.eitek.net



Abenduaren 8xan, Inmakulada egunian, urtero lez Eibarko basarrixetako andrak batu egin ziran, edarto bazkaldu eta eguna alkarrekin jai giruan pasatzeko. Holan egin dabe azken 58 urtian eta aurrerantzian be holan egitten segitzeko asmua dakela argi laga deskue, "edarto pasatzen dogu eta".

58 urtian Inmakulada egunian alkartzen

GURE HERRIKO ANDRA BASARRITTARREN agenda eta kalendarixuetan kolore gorriarekin markau biharreko egunik bada, egun hori abenduaren 8xa da, horretan du darik ez dago. Egun horretan Eibarko basarrixetan jaixotakuak edo bertara ezkondu diranak urtero alkartzen dira, *"ahal izaten dan guztietan bai behintzat"* eta aurten erretratuan ikusten ditzuzuenak batu ziran. Jaixa pasauta, egun batzuetara merkatu plazan biharrian topau genduan Miren Gisasola eta, erretratua erakutsi eta eguna zelan pasau eben galdetuta, barrezka erantzun zeskun: *"Edarto ibilli giñan, aurten iaz baiño gehixago alkartu giñan. Ni oin dala 54 urte hasi nintzan urteroko bazkari horretara juaten, ezkondu eta koiñatak horren barri emotian, baiña badakit beste batzuk lehenagotik juntatzen zirala, hortxe dagan Dominga Arrillaga tartian".*

Plazako pare bat postu aurrerago eguan Domingari galdetuta, berak kontau zeskuzen Inmakulada egunaren harira antolatzen daben jaixaren inguruko gorabeherak: *"Lehelengo urtietan Usartzan juntatzen giñan eta handik Ixuara kanbixau genduan. Urte pare batian edo hantxe egin genduan bazkarixa eta, horren ostian,*

Arraten ospatzen hasi giñan, antziñako hostalian lehelengo eta Kantabria jate txian gero, eta harrezkero holan egitten segidu dogu. Akordatzen naiz zelan lehelengo urtietan oin baiño gehixago, hirurogeitaka andra juntatzen giñan. Eta hasieren soiñujolia be eukitzen genduan".

Bestela, halako egunian egitten daben plana gitxi kanbixau da: mezetara juan, alkarrekin bazkaldu eta alkarri kontuak kontau. Plan biribilla, horren gaiñekuak zelako pozik kontatzen dittuen ikusitta: *"Bestela, egun horretatik kanpora danak alkartzia oso oso gatxa da, eziñezkua. Guretako oso egun politta izaten da, biharrekin ahaztu eta, jaixaren aitzakixarekin, alkarrekin edarto bazkaldu eta arratsaldia berbetan pasatzen dogu, geure kontuekin. Eta holan, arratsaldia igerrri barik juaten jaku, etxera bueltatzeko ordua aillegatzen danera arte".*

Jaixaren jatorrixan inguruan galdetxian, baiña, ez dakixe zergaittik aukeratu eben Inmakulada eguna urteroko bazkarixa egitteko: *"Egixa esateko ez dogu gogoratzen Inmakulada eguna eta ez besteren bat aukeratzeko motiborik edo egon zan, segueruenik baten batek holan esango eban le-*

helengo aldixan eta, behin hasitta, hurrengo urtietan be halako egunian batzen segidu dogu, gaur egunera arte".

Basarritar bixak agurtuta, urteroko zita horren gaiñeko erreferentzixa historikorik egongo ete zan billatzen hasi eta, hara, Arrate eta Inmakulada lotzen dittuan zeozer egon badago. Izan be, Nerea Areta Azpirik "Eibarko Efemeridiak" izenburuko bere lanian jaso ebanez, baleike Arratekua "Inmakulada" izena jaso eban lehelengo amabirijiña izatia: "Inmaculada Concepción de la Madre de Dios de Arrate izena emon izan jako. Ba Gipuzkuan, eta baleike Euskal Herrixan, Inmakulada Kontzeziñuan titulua dakan lehelengo Ama Birjiñia da. E. Urroz-ek, gehixao diño: *"Su advocación [Arrateko Amana] (la Inmaculada Concepción) es seguramente una de las primeras que ostentó en España el nombre glorioso de la Purísima Concepción"*. Batek daki idatziz jasota dagan horrek eta basarrixetako andrakumien jaixak zerikusixa eukiko daben ala ez. Baiña jakin badakigu hamendik egun pare batera estrenauko dogun urte barrixan be gure basarrixetako andrak abenduaren 8xa markauta eukiko dabela.



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Bidebarrieta 20
Tlfno: **943 2016 69**






Nerea Olano (kooperantea Perun): "Bereziki gogorra egin zitzaidan egunero negarrez egoten ziren bi umeren kasua, baina gurasoek etxean zuten egoerarekin, gero ulertu nuen zergatik egiten zuten negar".



Ane Sarasua (Berbetan, mintzapraktika egitasmoak): "Aspalditik neukan gogo. Azken finean, euskararen erabilera sustatzeagatik eman nuen izena, jakin askok badakigu, baina erabilera beste kontu bat da".



Jose Antonio Azpillikueta (dibujantia): "Jendiaren irribarria bilatzen dot, ez eskandalua sortzia herrixan. Txistia, gaiñera, ez da zure iritziarekin bat etorri bihar: hau ez da editoriala".

Urte barrixari ongi etorria Urkon emon zetsazen eibartar askok. Handik egun gitxira, **Hiru Erregiak** kabalgatak gure herrixa ziherkatu eben, kiroldegixan umien dantzak ikusten egon eta gero. Eta egun horren bueltan, Auzokoak alkartekuak, urtero lez, **Gureak**-eko bihargiñeri bazkarixa preparau zetsen. Eta urteroko kontuekin jarraituta, San Sebastian eguna ospatzeko **Danborradako** kontzertua eskindu eben gurian eta Ustekabe fanfarreko gaztiak, barriz, Donostira juan ziran hangiak gonbidautu. **Lagun Taldekuak** urteroko moduan dantza eta musika ikuskizuna eskindu eben Unibersidade Laboralian, saio bikoitzian. Hillaren 18xan Eibarko **Armagintzaren Museua** Portalean zabaldu ebela zazpi urte bete ziran eta **Klub Deportibuak** be urtiak egin zittuan, hillaren 30ian Deporrek Junta Orokorra lehelengoz batu zala 90 urte bete ziran eta. Eta urte hasieran balantzia egitten hasitta, Coliseo antzokiak 2007xan atiak lehelengoz zabaldu zittuanetik hona ikusle kopuruak urte-urte gora egitten segidu dau, bertan eskintzen diran ikuskizunen kopuruak moduan: **Udala Platea** programan sartziarekin batera 435 ikuskizunetik gorako katalogua bere esku hartu eban. Gaiñera, krisi ekonomikuaren kaltiak murrizteko asmuarekin, Coliseo antzokixan ezeze, Astelena frontoian eta Ipurua kiroldegixan egitten diran ikuskizunetarako sarreretan **deskuentuak** aplikatzen hasi ziran. Eta urtia hastiarekin batera, Jose Antonio Azpillikueta **Supermendikute** superheroi eibartarraren komiki bilduma barrixa presentau eban.



Eibarko kirol sariak.



Gero eta gazte gehiago odola ematen.



Lagun Taldearen jaialdia.

Labores de Ainhoa



Gurutze-puntuan eta patchwork-en espezializatua.

Juan Gisasola, 6 690261090
 PATCHFILDOR-ekin elkartutako DENDA BERRIA



- Pin-ak
 - Metxeroak
 - Kamisetak
 - Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behe
 ☎ eta faxa: 943 70 14 97 publi.resa@euskalnet.net



Xabier Alzaga (DanobatGroup): "Krisiaren globalizazioak denok hartzen gaitu; horregatik, gure tokia aurkitu behar dugu, bezeroak nahi duenari egokitu, flexibleagoak izan... Transformazioa beharrezkoa dugu".

Teresa Agirreazaldegi (Gure Esku Dago): "Alderdikak ezer egiten ez dabenez, auzixari modu zuzenian ez detsenez heltzen, geuk hartu dogu horren arduria geure gain".

Aracadio Benitez (Mankomunitateko presidentea): "Birziklatzen dutenei jarraipena egingo diegu, hondakin organikoak birziklatzen dabilzan ala ez kontrolatzeko. Badaude horretarako baliabideak".



San Blas opilak bedeinkatzen.



Gure Esku Dago / San Blas Zati Bat taldea sortu zen.



Antzerki Jardunaldien aurkezpena.

Neguko jaixekin hasi zan hillia: Kezkaren eskutik koko-dantzarixak eta kokomarruak basaririk basarri ibilli ziran, handik egun gitxira aillegauko ziran **Ara-tostiak** iragartzen. Ohiturari eutsita, askok opilak bedeinkatu zittuen **San Blas** egunian. Eta **Santa Ageda** goguan, santaeskian eta koplak kantatzera urten eben herriko taldiak. Santuekin jarraituta, **San Balentin** ospatu eben Untzaga jubilau etxeak, Marian Forcen eta Domingo Barcelonari omenaldixa eginda. Otsaillaren 6ko goizian istripu ikusgarrixa gertatu zan Ipuruan, automobil bat hankaz gora, bueltia emonda geratu zan eta. Ikasliak eta ingurukuak zuzenian jasan zittuen greba biren ondorixuak: udalak kontratautako **garbitzailiak**, lan baldintzak aldatu nahi zetsezela-eta protestan hasi ziran eta eskoletako **autobus-begiraliak** urtarrillaren 27xan hasittako grebak burokomin bat baiño gehixago eragin zetsazen guraso askori, otsaillian bertan behera laga ebenera arte. **32'7 millioi euroko presupuestua** onartu zan, azken urtiotako altuena eta, aspaldiko partez aurrekonturako proposamenak ez eban kontrako botorik jaso. Egundako aldiarekin **neguko beherapenen azokia**, lehelengoz antolatutako **akademixen** ingurukua eta **Lanbide Heziketako** eskintza ezagutzera emoteko Ikasipresa izenekua egin ziran. Eta **Eskubide Sozialen Kartaren eta Gure Esku Dago** ekimenaren aldeko taldia, bixak febreruan aurkeztu zittuen. Hillaren 23an **Jose Antonio (Anton) Artamendi** Mugerza filosofo eta abade eibartarra hil zan, 80 urterekin. Eta hillaren azken egunetan Azitzaingo poligonoko **Garbigunia** inaugurau eben.

Larragest
INMOBILIARIA / ASEGURUAK



F. Calbetón, 22-24
943 200 012
690 610 715



Oihan Vega (aurkezlea eta musikaria): "Oso gutxi landu dira monologoak euskeraz: denak erdaraz direla esatera ausartuko nintzateke. Gure lepotik barre egitera ez dut uste oso ohituta gaudenik".



Jone Lahidalga (Eibarko Koro Gaztea): "Gurea ez da koro lirikoa. Oso erreperitorio zabala daukagu: pop, rock, gospel... Erritmoko abestiekien batera, euskal kantu ezagunak abesten ditugu".



Albert Boadella (Els Joglars): "Atzerkiaren aurkezpen, baliabide tekniko eta horrelako beste kontuetan, egoerak hobera egin du. Baina edukiei begiratu gero, horretan zalantza handiago daukat".

Udako Euskal Unibertsitateak zuzendari berriz izendatu eban: urteko bazterrian erabagittakuari jarraituta, Iñaki Alegria informatikuak UEU-ko zuzendari kargua betetzia onartu eban, beran aurretik zuzendarixa zan Karmele Artetxeren lekukua hartuta. Eta horrekin batera, urteroko martxiari jarraituta, udaberrirako ikastaruen eskintza presentau eben Markeskua jauregixan. Kultura eskintza biribiltzeko, urtero lez **bertsuak** protagonista izan ziran **Arrate Kultur Elkarte**an eta alkarte berak **Emakumearen Nazioarteko Egunaren** harira antolatutako II. Lan Artistikoen Lehiaketia, barriz, Alicia Garcia Tartasek irabazi eban. Topalekuan lehiaketara presentau zittuen artelanekin erakusketia egin zan. Urteroko moduan, herriko eszenatokixetaraiño era guztietako antzezlan mordua ekarri zeskuzen **Antzerki Jardunaldixak** agurtu genduzen. Eta herriko **pianojole gaztiak** atzera be Coliseuan kontzertua emon eben, Andoaingo lehiaketara jua aurretik. Musika ikasle gaztiak aurten be domiña eta diploma mordurekin bueltau ziran etxera. **Kezka** taldekuak **Poloniara**, Krakoviara biajian jua ziran, han ospatu eben zaldikoaren erakusketan dantzan egittera. **Zuhaitzaren Egunaren** harira 40 zuhaitz landatu zittuen Usartzan eta herriko jubilauak ekitaldi diferentziak antolatuta ospatu eben **Nagusixen XXI. Hamabostaldixa**. Ospatzeko moduko albistia laga zeskun martxuak, **Enrike Zuazua** matematikuari Humboldt sarixa emon zetsen eta. Eta **Xtremo Norte** aldizkarixak antolatuta, muturreko kiroleri eskindutako jardunaldixak egin ziran.



Aratostiak giro ezinhobean.



Martxoak 8, Emakumearen Eguna.



Gazte lokalak araudira egokitzeko diru-laguntzak onartu zituen Udalak.

943 20 37 15 **Ibarkurutze, 5**


altzariak
koltxoiak
eta sukaldeak

Karlos

TXOKO
TXOKO

*Giro alaiak
Gabon Zaharrear!*

UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR



Jon Etxabe (presio-ohia): "Doktrina ofizialak nahi duena esango du, baina Hegoamerikan ere abade bat baino gehiago sartu zen gerrillan".



Begoña Caballero (Emaus-Ekocenter): "%100 aprobetxatzen dugu, izan ere, hondakin moduan sailkatutakoak ez ditugu botatzen, tailer eta bestelakoetan erabiltzeko trapaak egiten ditugu".



Asier Arrieta (publizitate irakaslea): "Zuhaitz baten sustraiak ez badira egoki errotzen zuhaitza nekez hasiko da eta publizitatean ere oinarri egokiak aukeratu behar dira, nahi dugun emaitza edo eragina lortzeko".



Eibar-Sahara elkartekoak Untzagan erabilitako liburuak saltzen.



Eibar Kantuan arrakastatsua.



II. Errepublika gogoratzen.

Politikan kanbixuak ekarri zittuan apirilak: EH Bilduko Soco Baskaranek eta Begoña Vesgak kargua laga eta Igone Lamarain eta Gorka Novoa ziñegotzi izendatu zittuen. **II. Errepublikaren** aldarrikapena gogoratu zan eta, urteroko hitzorduekin jarraituta, **Errentaren kanpaina** barrixa hasi zan. **Armerixa Eskolako Ikasle Ohien** Alkartekoak LXIV. Batzar Nagusixa egin eben eta Uni Eibar-Ermuko Informatika saillak antolatuta **Uni Encounter** topaketia egin zan. Ignazio Zuloaga **institutuko ikaslien artelanak** Portalean ikusgai egon ziran "Egungo Is-lak" erakusketan. Sanjuanetako **danborrada bixetarako entseguak** hasi zittuen Bittor Sarasketako lokalian. Eta eraikin berian, lehelengo pisuan erabilli barik eguan taillarrian, kultur ekitaldixetarako gune barrixa preparau eban Berreibar Kulturalak: **Bektokixa**. Bestela be, kultur ekitaldi mordua egin ziran: **Ipurterre** ipuin lehiaketako irabazliak aukeratu zittuen, Sostoa abesbatzak kontzertu sakroa eskindu eban, Kulturalak antolatzan daben **Eguen Zuri** argazki lehiaketa Pedro Arriolak irabazi eban eta Aste-lena frontoiak **Eibar Kantuan** jaialdixa hartu eban. **Liburuaren Nazifoarteko Eguna** ospatzeko egitarau berezixa antolatu eban Juan San Martin Liburutegixak. Eta **Eibarko Kantuzaleak** taldekuak Bilbon ospatu zan Euskal Herria Kantuz egunian egon ziran, Euskal Herri osotik juandako beste talde morduarekin batera kantatzen. **Elena Laka** eibartarra Topaguneko presidente barrixa izendatu eben. Eta aurreko urtian egindakuaren bidetik, **Deparkel** Parkinson alkartekue-ri laguntzeko pintxo-pote berezixa egin zan Untzagan.

Baimendutako Harategia

Gure Kalitatea



Giokela

MUGIKA Urkizu, 18
943120194

HARATEGIA

URTE BERRI ON!



Jabier Muguruza (kantautorea):
"Sorkuntza aldetik, ondo ikusten dut euskal musika; baina, bestela, garai konplikatua dira. Martxa honetan, laster musika profesionala desagertu egin liteke, eta musikari amateurak bakarrik geratuko lirateke".



Saioa Cabañas (argazkilaria):
"15 urte nituenetik beti ibili naiz kontzertu batetik bestera, kamera aldean nuela. Hasieran kamera txikia zen, denborarekin ekipoa hobetzen joan nintzen... Kontzertuetan egindako argazkiekin gauilunak.com webgunea daukat".



Pello Zabala (meteorologoa):
"Baserritarrak hiru egunerako eta aste osorako pronostikoak eskertzen duen moduan, kaletarrak jakin nahi du arratsalde zuzilean ibiltzeko zer eguraldi egingo dion".

Hillaren lehelenguan mobilizazio diferentiek gogoratu zuen bihargifien eguna. Eibarko Gaztetxeak udaberrixari ongiatorria emoteko jaixa, **Udaberri Fest** izenekua antolatu eban. Eta gaztetxian jokatu zuen **Plazatik Gaztetxera** Bertsolari Gazteen Txapelketia. Sasoi honetan urtero pasatzen dan moduan, udaberrixari ailegatziaekin batera jai girua han eta hamen, danian zabaltzen jua zuen. Bestiak beste **Santa Kurutz, San Isidro, Abontzako eta Galiziako jaixak** ospatu genduzen maiatzian. Eibarko Klub Deportibokuen agendia be bete-beteta egon zuen, **Argazkilaritza Maiatzian** programiak eta 49. **Euskal Jaixak** kalendari-xuan bat egin eban eta. **Ustekabe** fanfarrekuak Frantzian, Condomen egindako Europako banda jaialdixan bigarren sarixa jaso eban. **Eskolarteko antzerki erakustaldixa** egin zuen. Premixo gehixagorako tartia be egon zuen: 40 hautagaitza lehiatu ziran XXIV. **Torbio Etxebarria Sarixetan**. Maiatzaren 18xan **Museuen Eguna** ospatu genduan eta euskalzaliak hitzordu inportantiak euki zittuen: IV. **Euskararen Transmisioa Mintegia eta Tantan ez Tantan** jaixa. Hillaren 25ian **Europako Legebiltzarra**ko hauteskundiak egin ziran eta gaba horretan **Eibar foball taldia lehen mailara** igo zuen. **Josu Aristondo** karmelita Euskal Herriko fraide nagusi izendatu eban, baiña bestelako albisterik be egon zuen: **Jesus Rementeria** Atorrasagasti hiru sasoi ezberdiñetan Eibarren ziñegotzixa izandakua apirillaren 29xan 71 urterekin hil zuen eta. Eta maiatzian ipiñi eban martxan **organikuak batzeko sistema** barrixa.



Tantan ez Tantan, Euskararen aldeko katea.



IV. Euskararen Transmisioa Mintegia.



Dantzan, saltoka, hegan... Euskal Jaiarekin.

Enpresa eta komertzioentzat

ikale studio

- ✓ Diru laguntzak.
- ✓ Diseinu grafikoa.
- ✓ Industri diseinua.
- ✓ Produktuen Garapena.

☎ 664 410 076

✉ info@ikale.es

🌐 www.ikale.es

**BOLINTXO
OKINTEGIA
GOZOTEGIA**

Eguneroko
ogia



☎ 943 20 40 66 (Errebal, 9) ☎ 943 20 36 06 (Legarre Gain)



Ainara Labado (...eta kitto! Euskara Elkarte):
 "Gazteen euskera-gaitasuna zein den jakinda, oso gutxi erabiltzen dute. Beraz, motibazioa gakoetako bat da".



Arantza Alvarez (artista):
 "Kuadroez gain beste gauza batzuk ere margotzen ditut: plater zuriak erosi eta margotu egiten ditut, kamisetak marrazkiekin apaindu... denetarik margotzea gustatzen zait".



Aroa Rojas (Lisker): "Jai bizitzeko modu polita da, taula gainean abesten zaudela pareko jendea kantuan, dantzan, jaiarekin ondo pasatzen ikustea beti da pozgarria".



Eibar Foball Taldea primeran!



Milatik gora eibartar ekainaren 8an Bergaran Gure Esku Dago/San Blas Zati Bat Eibarko taldeak deituta.



San Juanak 2014.

Uda gerturatziarekin batera jaixak ugaritzen juaten dira: ekaiñeko lehelenguak **Urkikuak** izan ziran, baiña atzetik beste batzuk etorri ziran: **san-juanak**; hórretxen inguruan Rugby taldekuak antolatzen dabon **Garagardo Jaixa**; **sanpedruak**; Kezkarekin ikasten dabonak urtero kurtso amaieran egitten dabon **Dantzari Eguna**; beste herri batzuetatik etorritakua eta eibartarrak alkartuta, danera 140 lagun alkartzia lortu eban Eibarren **Kaleetan Kantuz Eguna**; eta, zelan ez, Eibar maillaz igotzeko jaixak ekaiñian be segidu eban. Aurten foballak eragindako ospakizunak eta, bestela, urtero herrixan ospatzen diranak bat egittian jaixak betetako hillia izan zan ekaiña. Eta jai giruan presentau eban Untzagan **Isekin** San Filippo gaitza sendatzeko inbestigaziñuan laguntzeko alkarre solidariuxua. Eta ekaiñaren 8xan **Gure Esku Dago / San Blas Zati Bat** Eibarko taldiak deittuta erabakitzeko eskubidiaren aldeko gizakataian parte hartzera Bergarara juandako 1.100 eibartarrak be eguna jaixarekin bat eginda pasau eban. Ospatzeko moduko beste kontu batzuk be laga zeskuezen ekaiñak: **Roberto Lopez Etxeberriak** Espaiñiako Moda Sarixen barruan banatu eban Diseiñatzaillle Gazte Onenari sarixa jaso eban eta Espaiñiako ekonomixa ministeriuxuak oin dala hiru urte Eibarri emondako **"Zientziaren eta Berrikuntzaren Hiri"** izendapena barritu eban. Inmigraziño arluan be albiste onik egon zan, beste herri batzuekin batera Eibarrak be **"ZurumuruEZ!"** ekimenarekin bat egin eban eta.

IÑAKI REZOLA
 HARATEGIA
Urte Berri On!!
 Errebal, 23 - Tel. 943 201 729

943 20 61 43
ALDATZ
 taberna
Martxa nahi baduzu... Zatoz!
Zure zain gaude
 San Juan, 3



Jose Miguel Calle (Udaltzainburu ohia): "Baratzean, aitzurra lagun dudala, egunero nabaritzen dut metro batzuk aurrera egin dudala; Udaltzairera ezin da lan polita moduan izendatu: erretzeko arriskua dago".



Amaia Aseginolaza (frankismoa jasan zuten emakumeen elkarteakoa): "Historia zati bat da eta horren parte izan gara. Gaur egungo ikuspuntutik bakarrik begiratuta, sinestezina egiten zaie askori nola gertatu ziren halakoak".



Iñaki Alegria (UEUko zuzendaria): "Gaur egun ikastaroen funtzioa ikasleek haien ezagutza zabaltzea eta profesionalekin harremanak bultzatzea dela esan dezakegu".

Baiña ekaiña osua jaixak beteta be, askok parrandarako gogurekin segitzen eben julixuan eta, hórretxek asetzeko, urteko zazpigarren hilliarekin batera beste jai batzuk aillegau jakuzen: Astixako umiak ospatzen dituen **sanfermiñak**, **Amañako jaixak** bete zittuen asteburu bi, jarraixan ospatu ziran **Sankristobalگو jaixak eta Lambretten konzentraziñua...** Urtero lez, ikasliak oporrak hartziarekin batera, Ipuruan **kanpoko igerilekua zabaldu** eben eta handik oso gertu, Markeskua jauregixan, **Udako Euskal Unibertsitateak** antolatutako 42. udako ikastaruetan jende mordua hartu eban parte. Ezusteko albisterik be laga zeskun hilliak, **Nuria Lopez de Gereñu** Confebaskeko buruak kargua lagatzia erabagi ebala aditzera emon eben eta. Eta 31 urtian herriko udaltzainburua izan zan **Jose Miguel Calle** jubilau zala eta, karguan emondako urtieri errepasua egitteko entrebisitia emon genduan argittara. **Berriketan**, Eibarko udaleko Inmigraziño alorreko programiari Europako Komisiñuak errekonozimendua egin zetsala aditzera emon eben. Kulturen eskutik holako sasoiari egitten dan **Ikusentzunezkuen Astea** lehelengoz antolatu ebela 25 urte bete ziran eta **Einer Rodriguezek** Euskal Herriko argazki panoramikuak Peruko bere sorterrixan, Trujillon erakutsi zittuan. Eibar Merkataritza Gune Irekiaren eskutik **udako merkealdi berezixa** hartu eban Toribio Etxebarria kaliak. Eta udako obren atalian, **oifiekzueudako pasabide goratuak** egitteko biharrerri ekin zetsen.



Ustekabe fanfarreko gazteak han eta hemen jaiak alaitzen.



Udako merkealdi azoka Toribio Etxebarria kalean.



Amañako Jai Batzordeak "Revista Eibar" omendu zuen.

UNBE TABERNA
 × Pintxoak
 × Bokatak
 × Bazkariak
 Balle Otaola 33 ☎: 943 70 00 81
EGUNEROKO MENUA

REIKI
USUI SHIKI RYOHO
CENTRO OM ZENTROA
Reiki 1. maila: Osabide naturaleko Usui Sistema
 Urtarrilaren 10ean eta 11n
 09.00etatik 13.30etara
 Kontakturako: **627 916 746 / 943 208 324**
 Plaza mugatuak
 Centro OM Zentroa **Zezenbide, 1 -EIBAR-**

eta
kitto!

El Corte Inglés



Gabonetako otarra

zenbaki
irabazlea

5.139

Urtarrilaren 2rako

ez bada irabazlea aurkezten ordezkioak
sartuko dira jokoan, orden honi jarraituz:

ORDEZKOAK

10.115 (urtarrilaren 16ra arte)

10.403 (urtarrilaren 30era arte)

6.113 (otsailaren 13ra arte)

**Eskerrik asko
Eibarko herriari!!!**

Lortutako dirua **EIBARREN
EUSKARAREN
ALDE** erabiliko dugu

ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZARENGATIK

Arriaundi, Baisi, Bolintxo, Depor taberna, Ego Gain taberna, El Corte Inglés, ...eta kitto!, Echetto - Urkizu, Isasi okindegia, Izadi loradenda, Kultu taberna, La Golosina, Maria Ospital, Mugika harategia, Ogi Berri - Urkizu, Otegui harategia, Udal Euskaltegia, Untzaga prentsa, Zubi-Gain taberna

kamisetak 12 euro
sudaderak 25 euro



bazkideek 2 euroko deskontua bi produktotan

eta kitto

...eta kitto! Euskara Elkartea Urkizu 11
komunikabideak@etakitto.eus
943 20 67 76 - 943 20 09 18



EIBARKO KIROL SARIEN XX. edizioa

Datorren eguaztenean, abenduak 31, ...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien edizio berri batek bere zita izango du Eibarko kirol munduarekin. Hogeigarrena izango da.

Coliseoan, eguerdiko 12.00etan hasiko den ekitaldian, modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute; modalitateei dagokienez, 26 sari banatuko dira eta, horiez gain, kirol ibilbideari eskainitako saria, sustapen saria, euskarakoa eta ohiko sari berezia ere izango dira. Guztira, beraz, 30. Lerro hauetatik, eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik.

SARI BEREZIA



Jon Errasti

Eibar Kirol Elkartea

EUSKERA SARIA



Urrat-Urkotronik

Waterpoloia

ARETO-FOBALLA



Iosu Ruiz

Debarrena Areto-Foballa

ARKU TIRAKETA



Daniel Gillegi

Urko Arkulariak Kluba

ATLETISMOA



Aitziber Urkiola

Eibarko Klub Deportiboa

AUTOMOBILISMOA



Jagoba Martinez

Escuderia Eibar

ERRUGBIA



Iraitz Beitia

Eibar Rugbi Taldea

ESKIA



Josefina Prieto

Eibarko Klub Deportiboa

ESKUBALOIA



M. Gojenola / I. Martinez

Eibar Eskubaloia

FOBALLA



Angel F. Zapico

Eibar Kirol Elkartea

GIMNASIA ERRITMIKOIA



Elene Varela

Ipurua Gimnasia Erritmikoa

GOLFA



Manu Fernandez

Eibar Golf Pitch & Putt

HERRI KIROLAK



Jaime Baglietto

Eibarko Euskal Jokoak

HIRU TXIRLO



Miren Diez

Asola Berri

abenduak 31, eguztena, 12.00etan, COLISEOAN

IGERIKETA



Nora Varela

Urbat-Urkotronik

JUDOA



Julio Gallego

Judo Kalamua

KARATEA



Juan Jose Amador

Ipurua Kiroldegia

MENDIA



J. Etxeberria/A. Trebiño/ P. Iriondo

Eibarko Klub Deportiboa

PILOTA



Markel Larrauri

Eibarko Klub Deportiboa

SASKIBALOA



Gergori Prieto

VL Eibar Klub

SILBESTRISMOA



Patxi Luke

Eibarko Txori Lagunak

SQUASH



Fernando Valenciano

Eibarko Klub Deportiboa

TIRO OLINPIKOA



Iker Jauregibarria

Club Tiro Dinbi-Danba

TRIATLOIA



Karlos Perez de Obanos

Delteco Eibar Triatloi Taldea

TXIRRINDULARITZA



Iker Goikoetxea

Dehabarrena-Kirolgi

WATERPOLOA



Infantil mailako taldea

Urbat-Urkotronik

WU-SHU



Asier Cuesta

Ttatt Gimnasioa

XAKEA



David Perez

Eibarko Klub Deportiboa

KIROL IBILBIDEA




Jose Mª Arrazola


SUSTAPENA



Oberena



Aiora Renteria (Zea Mays): "Toki txiki batean kontzertu intimoa egiteko aukera daukazu; hori da alderik nabarmena, baina Arrateko moduko zelai handi batean jotzea gozada bat da, indar gehiago eman behar diozu denari publikoa zureganatzeko".



Egoitz Zapiain (enologoa): "Sagar urte ona bada sagardo ona egingo da. Hortik aurrera sagarrak nola nahastu eta beste kontu batzuk sartzen dira tartean. Esperientziak zerbaitetarako balio du eta lehengo urteko hankasartzeak ez dira hurrengoan errepikatzen".



Lorea Arakistain (PuntuEus): "Helburua .EUS denontzako dominio bat izatea da. Jende guztiarengana iritsi nahi dugu: ez bakarrik erakunde handiengana, baizik eta enpresa txiki bat daukanarengana ere".

Hillia egun batzuk lehenago hasitta be, eta gogo barik udako oporreri agur esateko sasoia ailegauta, asko-arendako iraila **Arrateko jaixekin** batera hasi zan. Arrate egunian saldu eban, hain zuzen be, aspaldiko partez Eibarko garixakin Sosola basarri-xan egindako ogixa. Eta Arrateko Amaren eguna pasauta be, jaixak ospatzen segitzeko aitzakirik ez genduan faltan izan: hillian zihar **Arrate izenekuen jaixa, Kofradixa eta Basarritar jubilauren eguna, Barrena, Legarre eta Wenzeslao Orbea kalietako jaixak, Agiñagakuak eta Kantabriako Etxekuak** antolatzen dittuen Bien Aparecida amabirjiñaren omenezkuak bata bestiarene atzetik etorri ziran. Baiña Ipurua aldiari bizi diranetakoa askok jairako gogo gitxi zeken, abuztuan **foball zelaixa haunditzeko** hasittako biharrekin hasarre hórretxeri alegaziñuak aurkeztu zetsazen eta. Egun gitxiko aldiarekin, azkenian **herriko eskola guztietako ikasleri** motxilak hartu eta geletara bueltatzeko ordua ailegau jakuen. Eskolara bueltia, gaiñera, barrittasunekin etorri zan, aurtengo irailian hasittakua Wert ministruaren legiaren edo LOMCeren lehen ikasturtia izan dalako. Eta kurtso barrirako barrittasunekin topau genduan **Coliseo antzokixa:** udan hainbat konponketa egin zittuen antzokiko aretuetan eta, gaiñera, pelikulak emoteko proiektore bari bi erosi zittuen. Eta **Markos Untzeta** musikuak be nobedadiekin ekin zetsan ikasturtiari, Gaztelupeko Hotsak-en eskutik "Seinaleak" izenburuko diskua kaleratu eban eta.



Arrateko Jaixak.



Eibarko LOMCEri EZ taldea Untzagan.



Ipurua Foball zelaiaren inguruko bizilagunek zazpi alegazio aurkeztu zituzten udaletxean.



Super BM IFA taldea,
zure eguneroko erosketa



Julian Etxeberria, 14-16

Tel. 943 70 15 90



JOSE VICENTE PEROSANZ
M^a LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA

TEL. 943 204 194

FAXA. 943 820 006

Urtzaile, 1 EIBAR egurenyasociados@gmail.com



Carmen Simon (Atzegi): "Aurtengo kanpaina adimen urritasuna dutenek arlo desberdinetan aportatzen dutena azpimarratu nahi izan dugu. Aportazio eta ekarpen garrantzitsuena sentimenduei lotutakoak dira".



Gorka Errasti (udaleko inmigrazio-teknikaria): "Etoraginez berba egitean, beste arlo batzutan onartezinak liratekeen astakeriak lasai asko esaten dira eta horrekin amaitu beharra dago".



Iratxe Unanue (Aza ta Porru): "Produktu ekologikoak direla esatean pestizida eta horrelakoak erabili barik, ahalik eta modurik naturalenean hazitakoak direla esan nahi dugu".



Sagardo Eguna.



Arma Museoaren 100 urteak ospatzen.



Pobreziaren kontrako nazioarteko eguna.

Hillaren lehelengo egunak albiste tristia ekarri zeskun, 83 urterekin Cielito Musika Bandako kiderik zaharretakua zan **Ireneo Lamas** hil zan eta. Eta peniak in ikusi genduan zelán ixten zittuen **Valenciaga erropa dendaren** atiak. Lehelengo zapatuan ospatu genduan **Sagardo Egunian** 2.000 litro sagardo baiño gehixago edan ziran. Arlo sozialian, aurreko urteetan be egin diran **Inmigratziñuari buruzko zurrumurruak** ixiltzeko **jardunaldixak** eta **Pobreziaren Kontrako Egunaren** harira egindako aldarrikapena aittatu geinkez. Eta, hórretzekin batera, aurtén **Egoaizia eta Alboan** Gobernuz Kanpoko Era-kundiak, Aldatzenekin alkarlanian antolatuta Untzagan 400 lagun alkartzia lortu eban **bazkari solidarixua** bereziki azpimarratzeko modokua da. Eta hilleko agendiari errepassua egitten hasi ezkeró, egindako jardueren zerrendia osatzen, bestiak beste, **Liburu eta Disko Azokia**, Deporreko mendi taldekuak antolatutako XVI. **Jardunaldi Mikologikuak**, **Debarreneko Aste Ekologikua**, Inmigratziñuari eskindutako **jardunaldixak** eta XXII. **Musikaldixa** dagoz. Ospakizun berezixak be euki genduazén: **Arma Museoaren** sorreraren mendeurrenaren harira arma erakusketa barrixa zabaldu eban; Gipuzkoako **odol-emotailien alkartiak** 22 eibartar omendu zittuan; **EibarOrg-ko blog-komunidadiak** 10. urteurrena ospatu eban; eta **gaztetxiak**, barriz, hirugarrena. Eta talde barrixa jaixo zan: **Nalua Gazte Feministena**. Urteroko moduan, **gripiaren kontrako txertuaren kanpaiña** eta **Atzegiren #ElkarriOn** goiburukua abiarazi zittuen. Eta **Amaia Telleriak** 2013ko Enpresari Onenari sarixa jaso eban.

Zure etxe-barruaren onerako...

AHOLKULARITZA eta GESTIOA

EGOLAN

Julian Etxeberria 7, 7-C

Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com





Eneko Astigarraga (ESLEko presidentea): "Software libreak lehiakortasuna eskaintzeaz gain, erabiltzeak merketu egiten du prozesua. Gainera, besteengandik izan dezakezun menpekotasuna gutxitzen du".



Malati Pantha (nepaldarra): "Gure herrialdeko gobernuarekin gazteek ez daukagu etorkizunik, aberatsen eta pobreen artean ezberdintasuna oso handia da. Eibarren 70 bat nepaldar bizi gara. Jendea gurekin oso atsegina da".



Leticia Martinez-Alcoer (Eibarko Emakumeen Mahaia): "Zoritxarrez sarri gertatzen dira gehiegikeri sexualak. Ezinbestekoa ikusten dut gurasoek eta irakasleek prebentzioan lan egitea eta sintomak detektatzen jakitea".

Domusantu Egunian kanposantura janda hasi eben azarua askok. Eta hillaren hasieran **Euskal Herrian Euskaraz** sortu zala 35 urte bete ziran. As Burgas Gali-ziako Etxiak **Magosto eta Enpanada Jaixa** ospatu zittuan; handik egun gixira edarto ibilli ziran **Gaztañerre** ospatzeko AEK euskaltegiekin batera tabernarik taberna kalejiran ibiltzera animau ziranak. Arlo kulturalian, **Asier Errasti ikus-entzuzkuen** emanaldixak eta Javier Agirresarobe laburmetraia sarixak eskindu zittuan Plano Cortok. **Indalezio Ojanguren argazkilaritza sarixak** banatu eta erakusketia zabaldu eben. Eta **Munduko Paisaiak** programiak Nepal gerturatu zeskun. Txotxongilluekin gozatzeko aukeria emon zeskun **Titirijai jaialdixak** eta **Antxitxiketan** antzerki talde barrixak erreztal mistikua eskindu eban Karmelitetan; **Goruntz** abesbatzak Gasteizen, Santa Maria katedralian kantau eban. Urtero lez, musikuak **Santa Zezilia** ospatu eben. Korta Sarixetan eibartar biri, Microdeco-ko sortzaillietako bat izan zan **Manuel Iraolagoitiari** eta Unceta taldeko presidentia dan **Ricardo Garateri** errekonozimendua egin zetsen. **Garapen Pertsonalaren azokia eta Eraberritze eta Birgaitziaren ingurukua** egin ziran. Gipuzkoako Probintzia Auzitegixak atzera bota eban Errebalgo auziarengaittik udaleko hainbat ordezkari politiko eta tekniko-ren kontrako inputaziñua. Hillaren azken egunetan, azaroaren 25aren inguruan, indarkerixa matxista salatzeako antolatutakuekin batera **Eibar Beldur Barik** sarixak banatu zittuen. Eta 26xan **El Corte Ingle-sak** merkataritza gunia zabaldu ebala bost urte bete ziran. Betiko moduan, **sananadresak** agurtu eben azarua.



San Andresak euripean.



Atxia Motxia, Eibarko umeen kuadernoa.



El Corte Inglesaren 5. urteurrena.





Afilialu
www.ccoo-euskadi.net



CC00
euskadiko langile komisiak

*CC00-ek Euskadin
elkarrizketa sozialaren
eta negoziazio
kolektiboaren
alde egiten du*

Ifar kale, 1 Tel. eta faxa. 943 20 84 35 eibar@euskadi.ccoo.es



Teresa Toda (Sare):
 "Urteetan nabaria izan da euskal jendartearen badagoela beharra eta borondatea presoen –eta senideen– eskubideen desfentsan aritzeko".



Esther Kareaga (euskera-burua):
 "Euskeraren ordenantzak balio baldin badu euskaldunen kontzientzia pizteko eta euskeraren erabilera handitzeko, primeran; hori da helburua azken finean: euskeraren normalizazioa".



Oskar Arantzabal (ekonomilaria):
 "Gure esportazioak Espainia eta Frantziara murrizten doazen heinean eta urrutiagoko beste merkatu batzuetara areagotzen, mendekotasun koloniala alboratuz goaz eta askeago egiten gaitu".



Matxariatuz. Matxaria hobetzeko asmoa.



Euskeraren Eguna. Euskeriak 365 egun Eibarren.



Toribio Etxebarriako TAO martxan.

Abendua hasi baiño egun batzuk aurretik ixotu zittuen Gabonetako argiak. Euskeraren Egunian 76 urterekin hil zan luzaruan herriko dendarixen alkarteko presidentia izan zan **Julita Valenciaga**. Hurrengo egunian Mu-seuak **Santa Barbara** ospatu eban. **Durangoko Azokaren** bueltan, liburu aurkezpenetan aberatsa izan zan abendua gurian: Ego Ibarra batzordiak "**Atxia Motxia, Eibarko umien kuadernua**" emon eban argittara eta lana aurkezteko Coliseuan Patxin eta Potxin paillazuekin ekitaldixa antolatu eban; 1934ko Urriko Iraultzak eta orduko gertaeriak Euskal Herrixan izandako eragiñari buruzko liburuja kaleratu eban **Jesus Gutierrez** eibartarrak, Juan Ramon Garai eta Josu Txuekarekin alkarlanian. Eta **Juan Sanchez-Vallejo** sindikalista eta medikuak, barriz, "¡Madre, quiero cambiar el mundo!" liburu barrixa emon eban argittara. **Piritx, Porrotx eta Marimotots** bisitan etorri ziran "Txo, mikmak txikia" ikuskizun barrixarekin. Arrasaten egin zan Gipuzkoako Akordeoi Jaialdixan parte hartu eban **Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako** 13 ikaslek. Eta **Matxariatuz** parte hartzeko prozesuaren barruan taillarra egin zan 17xan. **Toribio Etxebarriako TAO** makifia be urteko azken hillian ipiñi zittuen martxan. Gabonak baiño lehen, **Elikagaixen Bankuari laguntzeko babajana** antolatu eban Eibarko Sozialistak. Eta Gabonetako jaialdixekin agurtu eban **San Andres eskolakuak 50. urteurrenaren** harira antolatutako programaziñuaren lehen zatixa, urtarrilletik aurrera ekitaldixekin segitzeko.

GAUR
 ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA
 KONPONKETA
 ELEKTRIKOAK

ATEZAIN
 AUTOMATIKOAK ETA
 BIDEO-ATEZAINAK

Zuloagatarren 9, behea
 Telefonoa 943 20 62 40

carmen@egaur.com
 Faxe 943 05 69 23

Laguntza Teknikorako
 Zerbitzu Ofiziala

EIBARSAT

Elektrodomestiko txikien mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, elektrodomestiko txikien piezak, eta abar...

IFAR KALE 8
 Tel. eta Faxe. 943 20 67 17
 20600 EIBAR

Eibartik irtenda eta munduari begira, badira gertaera aipagarriak azken 365 egun hauetan. Hona hemen horietako batzuk



Curiosity-ren selfia Marten



Malala Yousafzai, Bakearen Saria



SIRIA: Errefuxiatuen eremua bonbardaketa baten ondoren



UKRANIA: Emakume ukrainarrak base militar bateko soldadu errusiarrekin



ZISJORDANIA: Palestindarra eta israeldarra, bata bestea grabatzen



AMAZONIA: Zibilizazioarekin kontakturik ez duten indioak hegazkin bat ikustean



IRAN: Guraso batzuk euren semearen hiltzailea urkatik askatzen



KAZAJSTAN: Hiru astronauten lurreratzea. Estazioan sei hilabete egin ondoren



Estorninoak Eskozian




I. Mundu Gerraren mendeurrenean, hildako soldadu britainiar bakoitzeko amapola bat Londresko dorrean



MEXIKO: Ertamerikako migratzaileak Estatu Batuetako mugalderako bidaiari



AUSTRALIA: Trena bultzaka bidaiari baten berna plataformatik askatzeko



NIGERIA: Ebola epidemia dela-eta, laser-termometroarekin tenperatura hartzen



AEB: Iskanbilak Michael Brown hil zuen polizia epai-mahaiak aske lagatzean



MELILLA: Afrikarrak hesiaren gainera igota europarrak golfean dihardutenean



GAZA: Herria suntsituta zazpi astetan Israelgo bonbardaketen ondoren

Giltzapetik, Topalekuan ikusgai

Urte berriarekin batera, "Giltzapetik" presoen lanen erakusketa zabalduko dute Topalekuan: urtarrilaren 2tik 10era bitartean martxan egongo den erakusketa margolanak, zeramikak, bideoak, pegatinak eta Ibon Muñoa eibartarrak idatzitako liburuak egongo dira ikusgai, astegunetan 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



laburrak

MOGEL ISASIKO OTARRA

Abenduaren 22an Mogel Isasi BHI-koek zozketatu zuten otarra 2.378 zenbakia duenak eramango du eta ordeko zenbakia, berriz, 9.750 da. Irabazleak 652778116 telefono zenbakira deituta jar daiteke arduradunekin harremanetan (iraungitze data urtarrilaren 12a da).

PORTALEA ITXITA

Abenduaren 31n eta urtarrilaren 1ean eta 6an Portalea eraikina itxita egongo da eta, beraz, egun horietan ezin izango dira bertako zerbitzuak edo instalazioak erabili.

Patxin eta Potxin Coliseoan



Gaur arratsaldean, 17.00etan Patxin eta Potxin pailazoak Coliseoan egongo dira, "Txangoa" izenburuko ikuskizunarekin (3 euro). Bi artistek txangoa antolatu dute eta, ikusleak parte hartzera gonbidatuko dituztenez, "txangoan zehar gerta daitezkeen ezustekoetarako erne" egoitea gomendatzen diete ikusleei.



"Somos tan imbeciles" antzezlan

Urtarrilaren 15ean, 19.30etan Lino Braxeren "Somos tan imbeciles" antzezlan taularatuko du A Coruñaiko Valacar taldeak, ONCE antzerkiaren XV. biurtekoaren barruan antolatutako emanaldian. ONCE-k betidanik landu izan ditu integrazioarako ekimenak eta Coliseoan jardungo duen antzerki konpainia horren adibide paregabea da: Valacar 1989an

jaio zen antzerki tailer gisara eta laster antzerki konpainia bilakatu zen. Hau izan zen itsuek osatutako Galiziako lehen antzerki konpainia eta bertan 40 aktoretik gora hezi dira. Sarrera doan izango da, baina aurretik gonbidapena jaso beharko da (Arraguetako ONCE-ren bulegoan, urtarrilaren 7tik aurrera eta Coliseoko leihatilan ohiko ordutegian).

Jimmy Barnata&Band

Urtarrilaren 16an, 20.30etan Jimmy Barnata&Band zuzenean entzuteko aukera izango da Coliseoan (8 euro). Hogeitahamabi urteko musikari ezaguna Santander eta New York artean hezi da eta, horren eraginez, umetatik edan du Estatu Batuetako musika eta kulturaren iturritik eta Eibarrera "Room 13-A blues tale" zinema eta musika uzta-tzen dituen estudioko bere hirugarren diskoa aurkeztera dator.



Iradi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

Euskararen normalizazioan ezinbesteko lana betetzen dute euskal hedabideek, euskaldunei informazioa jasotzeko eskubidea bermatzen dietelako. Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak uste du laguntza politika aldatu beharra dagoela eta azken urteotan hedabideentzako aurrekontuek izan duten beherakadari buelta eman behar zaiola, enpresek produktoa duintasunez kaleratzen jarrai dezaten eta berrikuntzak egiteko aukerak izan ditzaten.

Euskal hedabideek azken urteetako diru-laguntza murrizketak salatu dituzte

38.185 euro jaso ditu aurten ...eta kitto! astekariak Eusko Jaurlaritzatik

Euskal hedabideak euskarak bete gabe zituen espazioak betetzeko jaio ziren. Ukaezina da hizkuntzaren normalizazioan betetzen duten papera. Gaur egun, duela hogeita bost urte baino askoz ere zabalagoa, aberatsagoa eta modernoagoa da eskaintza. Duela mende laurden, ez zegoen herrietan eta eskualdeetan gaur egun dagoen aukera komunikatiboa. Ez zegoen gaur egun euskal hedabideek eskaintzen dugun produktu ugartasuna: hedabide nazionalak, eskualdekoak, herrietakoak, aisialdikoak, gazteentzakoak, pentsamenduzkoak, gai orokorrekoak...

Diru laguntzen garrantzia

Euskal Hedabideek 4.875.000 euro jaso dituzte aurten Eusko Jaurlaritzatik. **Kopuru horren % 0,78 jaso du ...eta kitto! astekariak**, hau da, 38.185 euro. Sektoreak ondo daki horri esker eutsi ahal izan diotela enpresa askok. Momentu honetan Eusko Jaurlaritza da euskarazko hedabide gehienen babesle nagusia. Behin baino gehiagotan baloratu da Eusko Jaurlaritzak egindako ahalegina. Baina, esan behar da euskararentzako aurrekontuek, eta, ondorioz, hedabideen finantziazio publikoak, beheranzko joera hartu dutela azken urteotan, 2008tik hona, eta bereziki 2010etik 2012ra. 2012tik 2014ra eustera jo dute administrazioek, baina ez diote egoerari buelta eman.

...eta kitto!

Eskuartearen daukazun astekariak 38.185

euro jaso ditu aurten Eusko Jaurlaritzatik. 2012an sekulako beherapena izan genuen (2011an 60.460 euro jaso genituen eta 2012an, berriz, 34.058 euro). Beherapen honen gure proiektua kolokan gelditu zen. Azkeneko bi urteetan ez da ia aldaketarik izan. *(Ikusi grafikoa)*

Diru-laguntzak Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta Eibarko Udaletik datozkigu. Gaur egun ...eta kitto!ren autofinantziarioa %64a da (publizitatea eta ekintza berezien bitartez lortzen da). Beraz, gure helburua ahalik eta autofinantziario maila altuena lortzea baldin bada ere, ezinbestekoa zaigu erakundeetatik datorkigun diru-laguntza.

Bestalde, aipatu beharra daukagu, publizitate eta komunikazioan Eusko Jaurlaritzak 2013an gastatu zuen aurrekontuaren %2 baino gutxiago iritsi zela euskal hedabideetara. ...eta kitto! astekarian ez zuen ezer ere gastatu Jaurlaritzak.

Sektore txikia, bai, baina bizia.

Baldintza oso kaskarrekin, baina sektore ekonomiko bat gara: 26 milioi euro inguruko presupuestoa hedabide guztien artean, eta diru laguntzen portzentajea, batz bestea, %23. Bestalde, 4,6 milioi inguruko aportazioa egiten dio sektoreak gizarte segurantzari; 1,5 milioi euro inguruko BEZa; 800.000 euro Pertsona Fisikoen Gaietako Zergan. Beraz, inguruan aberastasuna sortzen du euskal hedabideen sektoreak.

Guzti honen aurrean, euskal hedabideak

biltzen dituen Hekimen elkarteak ahalegin berezia eskatu nahi die Jaurlaritzan aurrekontuak eztabaidatzen ari diren alderdi politikoei, egoerari buelta eman diezaiten, eta ados dezaten gutxieneko aurrekontu bat euskararen biziberritzerako ezinbestekoak diren hedabideentzat. 2008ko egoerara bueltatzeko, hau da, murrizketak hasi aurreko egoerara itzultzeko, milioi bat euroko diru laguntza gehigarria beharko lukete hedabideek.


Bestetik, Hekimenen ustez, irizpideen inguruan gogoeta egin beharra dago. Horretarako sektoreak gogogoeta zabala abiatu du irizpide horiek identifikatzeko, irismena handitu, kalitatea sustatu, eraginkortasun soziala azpimarratu, autofinantziaketa landu eta eraginkortasuna, orokorrean, areagotzeko.

Berria eta aldizkari espezializatuak


Eguneroko hedabideek eta espezializatuak orokorrean beherakada nabarmena izan dute Jaurlaritzaren aurtengo diru-laguntzei dagokienean; aurten irismena (zenbat pertsonengana ailegatzen den) saritu du Jaurlaritzak.

Berriak 210.000 euro gutxiago jaso ditu Jaurlaritzatik, eta horrek berriro ere zaildu egin du bidegarritasuna. Egoera horri aurre egiteko, 2015ean 15.000 BERRIALAGUN lortu nahi ditu egunkariak (gaur egun 13.000 ditu). Berria.eus/berrialaguna web-orrian edo 943 330 43 45 telefono zenbakian jaso daiteke honi buruzko informazioa.

...ETA KITTO! ASTEKARIAREN DIRULAGUNTZEN BILAKAERA AZKENEKO 6 URTEETAN



...ETA KITTO! ALDIZKARIAREN AUTOFINANTZIAZIOA





Euskarazko berba-bikote lehiaketa



Berbetan, Mintzapraktika egitasmoak



Euskararen Transmisioa Mintegia



Kike Amonarriz



Kirola Euskaraz Bizi



San Fermin txiki



Udal euskaltegia eta AEK: klaseak erdi prezioan gurasoendako



Euskeraz Primeran kanpaina dendetan



Euskeraz Primeran kanpaina tabernetan



Gurasoak Berbetan barixakuetan



Dendariak Berbetan



Ipurterre Literatura Lehiaketa



Harixa emoten, idazleekin tertuliak



Tantanez Tantan



Gazteen euskera erabilera aztertzen



Iñaki Alegria UEUko zuzendaria



**Ostalari, dendari eta gurasoak
BERBETAN**



Euskeraz Bizi Nahi dut azokako flash-moba



**Euskeraren udal ordenantzak
udal plenoan onartuta**



Euseraren Eguna

9 hillabete Koldo goguan


APIRILLAREN 1-IAN, UDABERRIXAREKIN BATERA, laga zeskun Koldo Mitxelena Zumaranek, azken urtietako ...eta kitto! Euskara Elkartaren koordinatzailliak. Urte barrixa heltziaekin batera, bederatzirteko dira bizitza erdixa ...eta kitto!-ri eskindutakuak gero arte esan zeskula. Oindiok hogeirte bete barik zittuanian zapaldu zeban-eta Koldok lehelengoz ...eta kitto!-ko bulegua. Ilusiñoz betetako kazetaritzako ikasliak kolaboratzaillie moduan emon zittuan lehelengo



pausuak: arratsalde unibertsitatera eta goizez ...eta kitto!-ra. Lehelengo betebiharra gero liburua bihurtuko zan herriko elkarte gastronomikuen gaiñeko artikuluak osatzia izan eban; horretarako, Eibarko soziedade guztiak bisitatu zittuan, grabatoria eta argazki kamaria soñian hartuta. Bost urte kolaboratzaillie moduan jardun eta gero, 1998xan langille moduan hasi zan biharrian eta ordutik izan da elkartia eta aldizkariaren arteko zubi sendua. Bereberiak zittuan dohaiñen artian, askoren ahotan entzundakua: "Agintzia gustatzen ez jakon gidarixa, arazuen aurrian lankidiekin lasai berba egittekogauza zan eta ingurukuak motibatzen lehelengua. Kanpora begirako elkartiaren aurpegixa".

Euskerarentzat bizi zana

Euskalzalia, euskaria dantontzat zala uste eban eta egitten genduan dana euskariaren alde egin bihar genduala aldarrikatzen zebana zan Koldo. Euskeraren transmisioña-



ren inguruan be bazekan kezka eta, ardura horrek bultzatuta, Txikitto! umientzako hillabetekarixa jarri zeban martxan 1996. urtian. Teknologixa barrixak be beti zittuan buruan bueltaka eta, aldizkarixa interneten egoteko gogotik egin zeban lan hori lortu ahal izateko. Sare sozialetan be oso inplikauta egon zan, parte-hartzaillie eta jarraitzaillie sutsua beti. Debabarrenan eskualdeko proiektu komunikatibo bat sortzeko ahalegiñian be buru-belarri jardun zeban. Elkarteko ordezkari izan zan

be hainbat erakundetan, beziki Euskaltzaleen Topagunian, bertoko zuzendaritza batzordeko kide izan zan-eta, bi urte inguruz.

Bihargiñ eta lankide fiña, baiña hori baiño gehixago lagun bat galdu dau ...eta kitto!k, azken bederatzirteko argi konprobau ahal izan dogunez. Baiña berak egindako lanak hor jarraituko dau, eta hainbeste maittatu zeban alkartian gagozenok, hutsunia nekez beteko dogun arren, lagatako arrastuari jarraituko detsagun zalantzarik ez euki.



Apihillaren 1ian laga zeskunetik askotan ekarri dogu Koldo gogora. Oretetako Sagardo Egunaren antolatzailliak Koldo omendu eben apirillaren 22xan, sagarrondo bat landatu eben ekitadi hunkigarrixan. Eibarko Sagardo Egunian be txotxa berari eskindu jakon.



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, AITOR, hillairen 25ian lau urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta Pabloren partez.



Zorionak, ANDER, mutil haundi, domekan hiru urte egin zenduaz-en-eta. Aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, MANEX, hillairen 27xan lau urte bete zenduaz-en-eta. Muxu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JON, domekan hiru urte bete zenduaz-elako. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ARETXI!, zapatuan 10 urte bete zenduaz-en-eta. Askasko maitte zaittugu! Aitta, ama eta, batez be, Enekoren partez.



Zorionak, IZASKUN, urtarrillaren 6xan urtiak beteko dozuz-eta. Oso ondo pasau! Laztan haundi bat danon partez.



Zorionak, IKER (urtarrillaren 11n 14 urte egingo dozuz) eta IÑIGO (5ian), zuen urtebetetzian. Laztan haundi bana famelixa eta lagun guztien partez.



Zorionak, JULE, gure etxeko printzesak bi urte egingo ditte-eta. Maitte zaittugu, sorgintxo!



Zorionak, UNAI, hillairen 24an lau urte egin zenduaz-en-eta. Aitatxo, amatxo eta Julenen partez.



Zorionak, MIKEL!!, hillairen 28xan bost urte bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.

hildakoak

- M^a Pilar Alegre Corres. 94 urte. 2014-XII-18.
- Sabino Arakistain Oregi. 81 urte. 2014-XII-20.
- Pedro Begil Agirre. 99 urte. 2014-XII-23.
- Begoña Zarandona Ugalde. 69 urte. 2014-XII-23.
- Milagros Espada Zurrón. 77 urte. 2014-XII-24.
- M^a Nieves Gonzalez Delgado. 91 urte. 2014-XII-27.
- Pakita Beristain Garrastazu. 96 urte. 2014-XII-27.

jaiotakoak

- Sanskrit Bastola. 2014-XII-13.
- Ander Vispo Mutilola. 2014-XII-13.
- Martin Garcia Zafra. 2014-XII-13.
- Luka Conde Goenaga. 2014-XII-15.
- Nora Gorriti Moral. 2014-XII-16.
- Martin Mendez Pascual. 2014-XII-16.
- Lucia Arkotxa Larrarte. 2014-XII-17.
- Eira Rojo Etxeberria. 2014-XII-19.
- Paule Martin Gonzalez. 2014-XII-23.

SUDOKUA

	4		5	7		6	
						1	5
		5				3	
		2			7		9
5			1		9		3
	7		8			1	
	9					6	
4	5						
	8			1	6		7

2	7	5	3	6	1	4	9	8
1	8	3	9	7	4	2	6	5
4	6	9	2	8	5	3	1	7
3	1	2	8	5	7	9	4	6
6	4	8	1	3	9	5	7	2
9	5	7	4	2	6	1	8	3
5	9	6	7	4	2	8	3	1
8	2	4	6	1	3	7	5	9
7	3	1	5	9	8	6	2	4

AURREKOAREN EMAITZA

	7		1	3				
3	9							4
					2		7	
						2	6	5
			8		4			
9	1	5						
	6		9					
8							2	7
				8	6		1	

MARTITZENA 30**GABONETAKO PARKEA**

11.00/14.00 eta 17.00/
20.30. Astelena frontoian.

EIBART GARAGE

11.00/14.00 eta 17.00/
21.00. Eibarko artisauen
azoka. Zuloagatarren, 5.

PAILAZOAK

18.30. "Txangoa", Patxin
eta Potxinen eskutik
(3 euro). Coliseoan.

EGUAZTENA 31**IGERIKETA**

09.00. San Silbestre
txapelketa. Ipurua
kiroldegian.

GABONETAKO PARKEA

11.00/14.00 eta 17.00/
20.30. Astelena frontoian.

EIBART GARAGE

11.00/14.00 eta 17.00/
21.00. Eibarko artisauen
azoka. Zuloagatarren, 5.

KIROLKITTO

12.00. Eibarko Kirol
Sariak. Coliseoan.

SAN SILBESTRE

16.30. XXIV. S. Silbestre
lasterketa. Aixolan.

BARIXAKUA 2**GABONETAKO PARKEA**

11.00/14.00 eta 17.00/
20.30. Astelena frontoian.

EIBART GARAGE

11.00/14.00 eta 17.00/
21.00. Eibarko artisauen
azoka. Zuloagatarren, 5.

MELTXOR ERREGA

17.30. Meltxor erregearen
bisita. El Corte Inglesean.

ZAPATUA 3**GABONETAKO PARKEA**

11.00/14.00 eta 17.00/
20.30. Astelena frontoian.

EIBART GARAGE

11.00/14.00 eta 17.00/
21.00. Eibarko artisauen
azoka. Zuloagatarren, 5.

DOMEKA 4**EIBART GARAGE**

11.00/14.00 eta 17.00/
21.00. Eibarko artisauen
azoka. Zuloagatarren, 5.

ASTELEHENA 5**EIBART GARAGE**

11.00/14.00 eta 17.00/
21.00. Eibarko artisauen
azoka. Zuloagatarren, 5.

ERREGE KABALGATA

16.30. Dantza
erakustaldia: Ipurua
Dantza Garaikidea, Ipurua
Gimnasia Erritmika eta
Eibarko Balleta.. Ipurua
kiroldegian (ateak 16.00-
etan zabalduko dituzte).
19.00. Errege
Kabalgataren hasiera,
Untzagatik Urkizura
eta buelta.
20.00. Umeei harrera.
Udaletxeko patioan.

EGUAZTENA 7**KZGUNEA**

11.00/13.00. Facebook
ikastaroa.
16.00/18.00. Twitter
ikastaroa. Portalean.

EGUENA 8**KZGUNEA**

18.00/20.00. Kizoa
ikastaroa. Portalean.

KALERATZEAK STOP

19.00. Debabarrenakoen
batzar irekia. Portalean
(3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren
entsegua. San Andres
elizako lokaletan.

BARIXAKUA 9**KZGUNEA**

11.00/13.00. IT Txartela
ikastaroa.
16.00/18.00. LinkedIn
ikastaroa. Portalean.

ZAPATUA 10**HAUR PARKEA**

11.00/14.00 eta 17.00/
20.30. 2-12 urte bitarteko
umeentzat. Astelenan.

KIROLA FAMILIAN

17.30/19.30. 2 eta 5 urte
bitarteko haurrek/gurasoek
elkarrekin jolasteko gunea.
Ipurua kiroldegian.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz
abesbatzaren kalejira.
Untzagatik abiatuta.

DOMEKA 11**KIROLA FAMILIAN**

17.30/19.30. 2 eta 5 urte
bitarteko haurrek/gurasoek
elkarrekin jolasteko gunea.
Ipurua kiroldegian.

ASTELEHENA 12**KZGUNEA**

09.00/11.00. Internet
KzGunea ikastaroa.
16.00/18.00. Ofimatika
ikastaroa. Portalean.

MARTITZENA 13**IKASTEN**

10.00. Zinea: "XV. Asier
Errasti Laburmetraia
jaialdia". Armeria Eskolan.

EGUAZTENA 14**IKASTEN**

10.12. Deba-Iltziar (Santa
Katalinatik) mendi ibilbidea
egiteko trenaren irteera
ordua, Ardantzatik
(10.14etan Estaziñotik).

TAILERRA

11.00/12.00.
"eLiburutegia zerbitzu
berria: mailegu digitalaren
tailerra". Liburutegian.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren
entsegua. San Andres
elizako lokaletan.

EGUENA 15**IKASTEN**

10.00. "Lapurretak"
hitzaldia, Ertzantzaren
eskutik. Armeria Eskolan.

HOROSKOPOA**ARIES**

Modu ezin hobean amaituko duzu urtea
eta hobeto hasiko 2015. Urte ederra
izango da zuretzat, udaberria batez ere.

TAURUS

Gabonak oso zoriontsuak ez badira izan
ere, zure 2015a oparora izango da, arlo
ekonomikoan zein maitasun kontuetan.

GEMINI

Olentzerok ez dizula ezer ekarri? Zeozer
ikusiko zuen, adi egoten baita beti. Ea
datorren urtean hobeto portatzen zaren.

CANCER

Aldaketa handiak urte berrian. Lasai
hasiko duzu urtea; baina, aurrera joan
ahala, egoerak buelta osoa emango du.

LEO

Betikoa! Urteroko proposamenak urte
berriari begira. Horietariko zenbat bete
dituzu bizitza guztian? Hobe ahoa itxita.

VIRGO

Bizitza zeharo aldatuko dizun egoera
bat biziko duzu 2015ean. Baita erabaki
garrantzitsua hartu beharko ere. Adi!

LIBRA

Ez duzu ahaztuko 2014a. Hainbeste
gauza gertatu zaizkizu, eta hain politikak!
Zaila izango da urte hoberik izatea.

SCORPIUS

Olentzero joan da, baina trankil: opari
politagoak jasoko dituzu egunerokoan
datorren urtean. Astroak alde dituzu-eta!

SAGITTARIUS

Ez duzu tristorarako unerik izango urte
berri osoan. Irtezketan, pozez irtengo
zaizkizu malkoak. Zu bai zortekoa, zu!

CAPRICORNIUS

2015. urtea dagoeneko... zeinen azkar
pasatzen den denbora! Bizitza ahalik
eta hobeto aprobetxatu. Aukera duzu!

AQUARIUS

Urte berria dator, baina gauzak ez dira
gehiegi aldatuko zure bizitzan. Denak
berdin jarraitzeak lasaitu egingo zaitu.

PISCIS

Urte bidaiaria izango da zuretzat: inoiz
imaginatu ez duzun lekuetan egongo
zara eta une bereziak igaroko dituzu.

Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata

erakusketak

✓ Urtarrilaren 4ra arte

EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEKOEN erakusketa. *Portalean.*
UNTZAGA JUBILATU ETXEKOEN joskintza lanen erakusketa. *Untzagako jubilatuen etxean.*
LA SALLE ISASIKO 6. MAILAKO IKASLEEN jaiotzen erakusketa. *Untzaga jubilatuenear.*

✓ Urtarrilaren 2tik 10era arte

"GILTZAPETIK" presoen artelan erakusketa. *Topalekuan.*

✓ Urtarrilaren 31ra arte

JOAN MIMOREN argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan*
JON AGIRREREN argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
JUAN ZAMORAREN argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

✓ Urtarrilaren 9tik otsailaren 1era arte

"EIBAR K.E. 1940-2015 / 75. URTEURRENA" erakusketa. *Portalean.*

✓ Martxoaren 29ra arte

"EIBAR INDUSTRIALA 2014" erakusketa. *Armagintzaren Museoan (Portalean).*

lehiaketak

✓ Aratosteak Eibarren kartel lehiaketa

Lanak aurkeztea eta informazioa:
Urtarrilaren 21era arte, Pegoran.

✓ Arrate Kultur Elkarterako logotipoa

Lanak aurkeztea: **Urtarrilaren 22ra arte**,
 Informazioa: 943202299 telefonoan edo
 arratekultu@gmail.com helbidean.

tailerrak

✓ Zapatuetako Tailerrak

- Ogia egin Sosola baserrian eta gozogintza (HH3, LH1.). Izen ematea: Urtarrilaren 12tik 16ra eskoletan (10 euro).
 - Dantza garaikidea (LH 2, 3 eta 4). Izen ematea: Urtarrilaren 12tik 19ra Pegoran (10 euro).
 - Zure kamisetak eta zapatilak petsonalizatu (LH 5. eta 6. mailak). Izen ematea: Urtarrilaren 12tik 16ra eskoletan (10 euro).

✓ Mind Fulness edo 'Arreta Egonkorra'

Urtarrilaren 10ean hasita, zortzi zapatuetan (10.00-12.00). Adhara gimnasioan.

farmaziak

✓ martitzena 30

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ eguaztena 31

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ eguena 1

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

✓ barixakua 2

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ zapatua 3

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

✓ domeka 4

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ astelehena 5

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ martitzena 6

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ eguaztena 7

EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

✓ eguena 8

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✓ barixakua 9

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✓ zapatua 10

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ domeka 11

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ astelehena 12

EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

✓ martitzena 13

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ eguaztena 14

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✓ eguena 15

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✓ barixakua 16

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI -2014AN-
Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI -2015EAN-
Elorza (J. Gisasola, 18)

telefono jakingarriak

SOS deiak 112
Pegora 010
Udaletxea 943 70 84 00
Portalea 943 70 84 39
Udaltzaingoa 943 20 15 25
Mankomunitatea 943 70 07 99
Debegesa 943 82 01 10
KIUB 943 20 38 43
Epaitegia 943 03 34 00
Iberdrola 901 20 20 20
Naturgas 902 12 34 56
DYA Larrialdiak .. 943 46 46 22
Gurutze Gorria ... 943 22 22 22
Mendaro osp. 943 03 28 00
Anbulategia 943 03 25 00
Torrekuua 943 03 26 50
Errepideak 902 11 20 88
Ertzaintza 943 53 17 00
Eusko Tren 902 54 32 10
Pesa 902 10 12 10
Taxiak 943 20 30 71
 943 20 13 25
Alkohol. Anon. 629 14 18 74
Al-Anon/Alateen .. 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.50, 19.50 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.
EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.
EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.
EIBAR-MENDARRO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARRO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.
EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Babes Ofizialeko pisua salgai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 70 m². Garajea eta trasteroa egiteko aukera. Tel. 943-530556 eta 686-679518.
- Sorailuzen Babes Ofizialeko pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea eta trasteroa barne. Dena kanpora begira. Jantzitua eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 617-976263.
- 3 logelako pisua salgai Aldatzen. Lehenengo solairua, berriztuta eta eguzkitsua. Kanpoko igogailua. Tel. 660-683280.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-500 euro. Tel. 632-569245.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Txomon. Tel. 657-771496.
- Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean. Tel. 617-688311.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak eta plantxa orduka egiteko. Esperientzia. Tel. 622-037598.
- Pertsona nagusiak zainduko nituzke orduka. Tel. 626-197217.
- Eibarko neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta eskolatik jasotzeko. Tel. 658-845081.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 662-277136. Estefani.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-874731.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Tel. 658-755640.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta tabernak edo pegorak garbitzeko. Tel. 631-282203.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 637-004773.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-059689.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 682-277198.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 697-754174.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-176974.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 606-502567.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Gida baimenarekin. Tel. 631-315363.
- Neska gazte euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 610-980628.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordegi zabala, asteburuetan barne. Tel. 631-467031.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 632-230789.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 636-841158.
- Txoferra eskaintzen da, karnet guztiekin eta garraiolari (trailer) tituluaarekin. Esperientzia. Tel. 633-181350.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Fisika eta Matematikako klase partikularrak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez 4 laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.
- Euskarazko klaseak ematen ditut. Azterketarako prestaketa: EGA, HABEren perfilak, Osakidetza profilak... Tel. 620-608065.
- Arkitektura ikasketaduna eskaintzen da Batxilergo Teknikoko eta DBH 3-4 mailetako klase partikularrak emateko. Tel. 679-843282.
- Magisteritzan diplomatuak klase partikularrak ematen ditu Amañan zonan. LH eta DBH 1 eta 2. Edozein irakasgai. Esperientzia. Tel. 617-184931. Maite.
- Klase partikularrak ematen ditut. LH, DBH, Batxilergoa. Edozein irakasgai. Taldean edo bakarka. Tel. 610-980628.
- Ingeleseko klaseak ematen dira. Maila guztiak. Azterketa ofizialerako prestaketa. Irakaslego natiboa. Tel. 652-763264.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Organo elektronikoa salgai. 300 euro. Tel. 943-752480 eta 616-533796.
- Labea duen butanozko sukaldea salgai. Ia berria. Merke. Tel. 628-872295.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.
- Paperezko zakuak josteko makina salgai. Prezio onean. Tel. 665-701424.
- Gurpil-aulkia salgai. Egoera onean. Silikonazko bizkaraldea eta babesteko manta opari. 150 euro. Tel. 943-202042 eta 626-349842.
- Ordenagailu eramangarria salgai. Inpresorarekin. 250 euro. Tel. 943-752480 eta 616-533796.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Pailazoen emanaldietan honakoak laga zentuzten: euritakoa, txapel urdin disdiratsua, bufanda ile grisdua, Pirritx eta Porrotxen buff-a, buff beltza, txapel arrosa ponpoiarekin, jertse grisa 5 tailakoa, bufanda arrosa eta Scootex txakur panpina...eta kitto! elkartearen jaso dezakezue. - Telefono mugikorra aurkitu nuen domeka goizean Ardantz inguruan. Tel. 943-203205.
- Tom-Tom markako GPS-a, funda zurian sartuta, galdu nuen Eibarren aurreko astean. Tel. 615-797641.

6.4. Bestelakoak

- Azaroaren 30ean Samsung Galaxy Young zuria aurkitu bazenuen, eskertuko genizuke argazkien txartelak Udaltzaingoa lagatzen badituzu.
- Plano Corto elkarteak kolaboratzaileak behar ditu musutruk lan egiteko: web orrialdea eraman, epaimahaikide izan... Tel. 619-449600.



UNIVERSITY of CAMBRIDGE ESOL Examinations

Authorised Centre

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

ABENDUKO DEIALDIA
AZTERKETAK EIBARREN, DURANGON eta ARRASATEN

MATRIKULAK
Urtarrilaren 7tik 23ra

AZTERKETA DATA

PET	(idatzia eta ahozkoa)	LARUNBATA Martxoak 14
FCE	(idatzia eta ahozkoa)	LARUNBATA Martxoak 7
FCE FS	(idatzia)	LARUNBATA Martxoak 21(ahozkoa) LARUNBATA Martxoak 14
CAE	(idatzia eta ahozkoa)	LARUNBATA Martxoak 14
CPE	(idatzia eta ahozkoa)	LARUNBATA Martxoak 7

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

ARRASATE:	Parlance	943 77 06 83
BERGARA:	Espolon School of English	943 76 03 53
EIBAR:	Anglo-American	943 20 01 08
	Link Idiomas	943 20 39 59
ERMUA:	Akerlei	943 17 66 32
ELGOIBAR:	Kensington School of English	943 74 02 36
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44
OÑATI:	Academia Sheila Fritz	943 78 20 91
ONDARROA:	Howdy	96 683 23 79

DEBA:	Akabi	943 19 16 79
	North Street English	943 19 25 00
DURANGO:	San Jose Maristak	94 681 00 58
MENDARO:	Akabi	943 75 50 55
MARKINA:	Chatterbox	94 616 96 39
ELORRIO:	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
BERRIZ:	Speak up	94 622 52 94
ZUMAIA:	Golden Gate	943 86 50 20
MUTRIKU:	Gogoz	943 60 43 58

ORBEA HAURRESKOLA



Bittor Sarasketa, 11

943 20 03 84

orbea.eibar@haurreskolak.net

Haurreskolak

Badira plaza libreak

Etorri eta galdetu!



URTE BERRI ON!!





Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

Urte Berri On!



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com